

2022 IRAILAK 16 - URRIAK 22

38 EDIZIOA

# ORGANO

*musika Nafarroan*



*Gure herriak ezagutuz*

# AURKIBIDEA |

**GURE HERRIAK EZAGUTUZ**

**3**

**EGUTEGIA IRAILA**

**6**

**EGUTEGIA URRIA**

**7**

**PROGRAMA**

**8**

Saskia Roures / Kristina Berasain

**9**

Cristina Alís

**11**

Raúl del Toro

**13**

Óscar Candendo

**15**

Naji Hakim

**17**

Benantzi Bilbao

**19**

Álvaro Landa / Javier Jaso

**21**

Jorge García Martín / José Luis Echechipía

**23**



# GURE HERRIAK EZAGUTZEN

Organo  
Musika  
Nafarroan  
38. zikloa

**O**RGANO Musika Nafarroan zikloa Foru Komunitateko kultura panoramara itzuli da aurtun, urtero bezala 1984az geroztik. Gaur egun duen helburu nagusia da, duela 38 urte bezala, gure ondare organistikoaren eta inguratzen duen guztiaren aberastasuna zabaltzea. Denbora horretan guztian, ondarearen kontzeptua eboluzionatuz joan da, kulturaren munduan eta gizartean bertan egin diren hausnarketan arabera. Hala, zenbait termino sartu dira, hala nola ondare materiala eta immateriala edo giza ondarea. Hala ere, gure organo zikloaren kasuan behintzat, hasiera-hasieratik egon da hori guztia modu naturalean.

Hala, edizio bakoitzean, Nafarroan egoera hobereanean dauden organoei soinua ateratzeaz gain, saiatu gara gure lurraldeko organistak eta beste erkidego edo herrialde batzuetako organista gonbidatuak ekartzen. Horrela, prestakuntza osoa eta konplexua duten gure musikarien lana eta trebakuntza artistikoa sustatu ditugu, eta gure organoen ondarearen alde lan egitera bultzatu dira; gure hori esaten dugu alde afektibotik, ez jabetzatik, noski. Beste alderdia, ondare immateriala, batez ere Nafarroako egileen musikak ekarri du. Musika hori urte hauetan guztietan zehar entzun da, eta jarraituko dugu entzuten.



Hausnarketa horren barruan, edizio honetako berrikuntzetako bat da nabarmentzea organoa gure herri eta hirietako soinu banda deritzonaren parte dela.

Duela urte batzuetatik hona, inguratzen gaituen soinu paisaia aldatzen ari da, eta are gehiago gure inguruan daukagunari buruz dugun pertzepzioa. Egungo gizartean ekoizpena nagusitu da bizitzaren erritmo handia eskatzen duten zeregin zehatzei lotuta; gizarte horren ezaugarriek eraman gaituzte inguruko xehetasun txiki askoren aurrean arreta txikia agertzera. Xehetasun horietako asko soinuekin lotuta daude, eta oharkabea pasatzen zaizkigu, arreta emateko geldirik egon behar dugulako, eta gaur egun hori oso zaila da guretzat. Alde horretatik, organo ziklo berriak aukera ematen die pertsona askori erlojuak garrantzia galtzen duen testuinguru batean murgiltzeko, non musikak eta inguruan duen giroak aukera ematen duten geure buruarekin topo egiteko eta gure eguneroko bizitzan nagusi ez diren beste musika eta errealitate batzuetara irekitzeko.

Arestian esan bezala, organoa gure soinu paisaiaren parte da, eta aurten esperientzia aitzindari bat egiten dugu, gutxienez gertuen

dauden organo jaialdien testuinguruan: gonbidatutako organistek eskaintzen diguten musikari irudiak jartzea; hau da, soinu banda bat sortzeko alderantzizko prozesua gauzatuko dugu, soinu bandetan musika aldezturitik hautatutako irudien gainean konposatzen baita. Erronka garrantzitsua da, ia 7 orduko musika izanen baitugu, aurtengo kontzertuen iraupena batuta. Horrela, interpretatzaile eta musika handiak izanen ditugu, beti bezala, baina jarraituko dugu esperimenez sartzen gure proposamenetan, duela urte batzuetatik egiten dugun bezala.

Pantaila batean proiektatuko dira irudiak eta organistaren interpretazioa; irudietan, kontzertuak egiten diren herrietako txokoak eta ekitaldiak agertuko dira. Hau da: gure herrien irudiak gure organoen musikaren gainean.

Espero dugu esperientzia berri honek ezagutza berriak ekartzea, eta kulturaren eta bizitzaren ikuspegi zehatz bat adierazteko balio izatea, non gauza guztiak argi samar lotzen diren elkarrekin eta elkarri eragiten dioten. Organoa bera ere, musika tresna isolatua eta zaharkitua dela dioten aurreiritziak gorabehera, ikuspegi aberasgarri eta desiragarri horren parte da.

**José Luis Echechipía París**

Organo musika Nafarroan  
zikloaren zuzendari artistikoa

# IRAILA |

\* Sarrera libre, leku guztiak bete arte.

\*\* **Navarra Televisionek 2022ko urriaren 8an** emanen ditu kontzertu horiek.

# URRIA |

\* Sarrera libre, leku guztiak bete arte.

\*\* **Navarra Televisionek 2022ko urriaren 29an** emanen ditu kontzertu horiek.

# PROGRAMA |





# 16

IRAILA  
ostirala, 19:00  
Aita Karmeldarren  
komentua  
Iruña

## SASKIA ROURES, organoa KRISTINA BERASAIN, narrazioa

**A**ITA karmeldarren Iruñeko eliza hiriko ondarearen bitxietako bat da. Bitxi bat da, besteak beste, organoaren kalitateagatik; Ghys etxe frantsesak egin zuen, eta Espainian marka horren organo gutxi daude. Espazioaren akustika apartak girotzen eta berrindartzen ditu organoaren kalitatea eta sonoritatea.

Testuinguru hori oso egokia da Saskia Roures eta Kristina Berasain eskaintzen diguten proposamenerako. Kontzertuak César Franck handia omentzen du bere jaiotzaren mendeurrenean, eta haren musika eta hura ezagutu zuten musikari garaikideen zenbait testu konbinatzen ditu. Sentsibilitateak eta berotasunak bor-bor egingen dute saioan.



## PROGRAMA

César Frank - 1822 - 2022

### ARTISTA, MAISUA ETA GIZONA, HAREN DIZIPULUEN BEGIRADAREN BIDEZ

César Franck (1822 - 1890)

Pieza [Fantasia] la maiorrean (1854), CFF 51 \*

Charles Tournemire (1870-1939)

*César Franck* obraren zatiak (Paris, 1931)

César Franck

Sagarapena la maiorrean (1859) \*\*

Eskaintza fa diese minorrean (1861) \*\*

Louis Vierne (1870-1937)

*Mes Souvenirs* obraren zatiak (Paris, 1939)

César Franck

Andantinoa la bemol nagusian (n.d.) \*\*

Eskaintza mi bemol maiorrean (1858) \*\*

Vincent D'Indy (1851-1931)

*César Franck* obraren zatiak (Paris, 1906)

César Franck

Andantinoa sol minorrean (1856/57), CFF 54a/b \*\*\*

Eskaintza [*Pièce symphonique*] sol minorrean  
(1859) \*\*

\*Edizioa: Christiane  
Strucken-Paland  
(2018)

\*\*Iturria: *Pièces  
posthumes*, FWV 24  
(Paris, 1905) / Edizioa:  
Pierre Gouin (2010)

\*\*\*Iturria: *Musée  
del Organiste*, IV,  
97zk. / Edizioa: Chris-  
tiane Strucken-Pa-  
land (2018)

Testuen hautaketa  
eta itzulpena: Saskia  
Roures, 2021

17

IRAILA  
larunbata, 18:00  
Gurutzearen eliza  
Gares

## CRISTINA ALÍS,

Erdi Aroko organo garraiagarria

**S**AIO honetan Erdi Aroko giroan murgilduko gara, Cristina Alísen proposamenari eta kontzertuaren inguruneari esker. Garesko Gurutzearen eliza oso leku berezia da, bai akustikagatik, bai neurriengatik, bai transmititzen duen lasaitasunagatik. Gaurko interpreteak eskainiko digun musika entzuteko ingurune ezin hobea da. Entzunen dugun tresnak organogintza artearen Erdi Aroko hainbat fasetako egoeraren testigantza ematen du. Organo garraiagarriak aukera ematen du organo handiek haien garapenean galdu zituzten baliabide



eta tresna adierazkorrak erabiltzeko; galera horren trukean, beste aukera ahaltsu eta aberats batzuk irabazi zituzten. Hala ere, organo garraiagarriaren soinuarekin eta musikarekin sortzen den giroak ikuspegi guztiz desberdina ematen digu, ohiko organo kontzertu batekin konparatuta.

Programak organo garraiagarriaren bi ikuspegi proposatzen dizkigu: mistikakoa, musika erlijiosoaren adibide batzuen bidez, eta maitasun kortesekoa, aurrekoez geroko musika obra batzuen bidez. Guillaume de Machaut proposatutako egileen artean dago, urte batzuetan Nafarroako Karlos II.a erregearen zerbitzura egon zena.

Cristina Alísen arabera, "Organettoarekiko Lilura da bere programa berriena, soloa dela, Erdi Aroko organo garraiagarriarako. Programak aukera ematen du musika tresna deskubritzeko eta haren soinu malgu xarmagarriekin maitemintzeko. Emozioez betetako ibilbide bat, bakea, sentsualitatea eta dibertsioa sentitzeko".

## PROGRAMA

### **ORGANETTOAREKIKO LILURA**

Organo garraiagarriaren  
hiru espirituak

#### I Organetto mistikoa

Santa Zeziliaren ofizioko kantu  
sorta. Antiphonaire de Sainte Marie  
de Beaupré  
[Walters Museum W760].

#### II «à la cour du Dieu d'Amour» organettoa

**Francesco Landini** [1325 - 1397]

D'amor mi biasmo

Lamento di Tristano

Ecco la primavera

Tre Fontane [Istanpitta]

**Guillaume de Machaut**

[c1300 - 1377]

Mors sui, se je ne vous voy

**Gherardello da Firenze**

[c1320 - 1362]

I'vo bene a che vuol bene a me

#### III Bide librea organettori

Musika hautaketa, ezustekoak  
dituena.

# 24

IRAILA  
larunbata, 18:00  
San Migel eliza  
Oteitza

## RAÚL DEL TORO, organoa

**O**TEITZA Iguzkitzako San Migel elizako organoa Cayetano Estadella enpresak egindakoen artean kontserbatzen diren bakanetako bat da. Xehetasun guztietan kalitate handia duen organoa da, eta estetika erromantikoa eta sonoritate ederra ditu. 1923koa da.

Oraingo honetan entzunen dugun programa ezin hobeki dator bat organo horren ezaugarriekin, eta, gainera, fabrikatu zen garaian kokatzen da, programako egile guztiak aktibo baitzeuden haren fabrikazio urtean. Musika proposamen hau osatzen duten lanak ez dira ohikoak kontzertu programetan, nahiz eta ezbairik gabe merezi duten. Zorionez, gero eta interprete gehiagok ematen diote



arreta XIX. eta XX. mendeetan Espainian konposatutako musika errepertorio horri. Raúl del Torok urteak daramatza musika hori ikasten eta interpretatzen.

Oteitza Iguzkitzako organoaren soinua ederra, noblea eta orekatua da. Profesionaltasun handiarekin egina dago, eta kalitatezko organogintzaren adibide bat da.

## PROGRAMA

**Luis Iruarrízaga** (1891 - 1928)

Triludio organikoa euskal melodia herrikoi baten gainean (osatugabea).

Deus, in adjutorium meum intende  
Laetatus sum in his quae dicta  
sunt mihi

**Eladio Hernández Murillas**

(XX. mendearen lehen erdia)

Divertimento (1941)

**Eduardo Torres** (1872 - 1934)

Kantu intimoak III

Suavis Dóminus

Graduala: *Surrexit Christus*

Eskaintza

Sagarapena

Gogartea *Angelus Dómini locutus  
est María*

Jaunartzea

Bitartea

Inpresio teresiarra

Otoitza

Amaiera

**Bonifacio Iráizoz** (1883 - 1951)

Hiru pieza organorako

Tokata, lehen modu gregorianoko  
bira baten gainean

Eskaintza, *Ecce panis angelorum*  
melodia gregorioanoaren gainean

Mussette: Gabonetako pieza

**José María Beobide** (1882 - 1967)

Amaiera



30

IRAILA  
ostirala, 19:00  
San Esteban eliza  
Bera

## ÓSCAR CANDENDO, organoa

**K**ONTZERTU honek Espainiako XIX. eta XX. mendeetako bi musikari batzen ditu: Eduardo Torres eta Aquilino Amezuza. Lehenengoa 1910ean iritsi zen Sevillako katedraleko musika irakasletzara. Zazpi urte lehenago, organogile gipuzkoarrak bere instrumenturik handiena fabrikatu zuen Sevillako katedralean bertan. Ordurako, Berako San Esteban elizako organoak 15 urte zeramatzan martxan. Egoera horretan, ez da zaila ondorioztatzea Aquilino Amezuaren organogintzaren eta, beraz, Berako organoaren sonoritateak oso presente egonen zirela Torresen buruan, bere organorako lanak konposatzerakoan. Gogora ekarri behar da Berako San Esteban elizako organoa dela Aquilino Amezuak fabrikatutakoen ar-



tean jatorrizko egoeran kontserbatzen direnetako bat, haietako asko eraldatu egin baitziren gerora.

Kontzertuaren programari dago-kionez, oso musika ederra eta ongi idatzia gozatzeko aukera izanen dugu, Pio X.aren *Motu proprio* argitalpenak Espainian musika sakraturako ezarri zituen koordinatuen barruan.

Gainera, aurreko belaunaldi-ko musikaren panoramika eskaintzen digu, bai Alemaniakoa bai Espainiakoa, Josef Gabriel Rheinberger eta Felipe Gorritiren eskutik.

## PROGRAMA

### Josef Gabriel Rheinberger

(1839 - 1901)

#### 8. sonata, op. 132

Fuga

Intermezzo

Scherzoso

Passacaglia

### Felipe Gorriti (1839 - 1896)

Itxarobidea

(Sagarapena eta Otoitza)

### Eduardo Torres (1872 - 1934)

Sarrera jostalaria (Kyrie Altissime)

ETorg 39

4 saeta ETorg 108 - 111

Jubilate Deo ETorg 58



# 2

URRIA  
igandea, 12:45  
Leireko  
monasterioa  
Esa

## NAJI HAKIM, organoa

**N**AJI Hakim organista, konpositore eta irakasle ospetsua da mundu osoan. Parisko Trinitate elizako organista bihurtu zen Olivier Messiaen-en ondoren. Gero lan bera egin zuen Bihotz Sakratua elizan, Parisko beste tribuna garrantzitsu batean. Bere musikak (adibide batzuk emanen dizkigu) estilo eta ikuspegi oso pertsonalak ditu gaiak aukeratzean eta konposizioaren tratamendu teknikoan.

Bere musika lanen artean daude pieza instrumentalak (organoa, txirula, oboea, klarineta, txistua, basoia, adarra, tronpeta,



arpa, gitarra, biolina, pianoa], musika sinfonikoa (Les Noces de l'Agneau, Hymne de l'Univers, Ouverture Libanaise, Påskeblomst, organorako bost kontzertu, biolinerako kontzertu bat, pianorako kontzertu bat, txisturako kontzertu bat), eta ahots musika (Saul de Tarse oratorioa, Phèdre kantata, Magnificat, lau meza).

## PROGRAMA

**Naji Hakim** (1955)

[Bogurodzica](#)

**Jean Langlais** (1907 - 1991)

Chant de Paix

**Naji Hakim**

[Trois Paraphrases sur Ave maris stella](#)

**Naji Hakim**

[O sacrum convivium](#)

**Naji Hakim**

[Ubi caritas](#)

**César Franck** (1822 - 1890)

Prière

**Naji Hakim**

[Tanets](#)

**Naji Hakim**

Improvisation

8

URRIA  
larunbata, 19:00  
Andre Mari eliza  
Etxalar

## BENANTZI BILBAO, organoa

**B**ENANTZI Bilbaok joko du aurten Organo Musika Nafarroan, eta kulturaren bi figura handitan jarriko du arreta: alde batetik, Eduardo Torres, konpositorea, Sevillako katedraleko kapera maisua eta bere garaiko musika irakaskuntzaren eta jardueraren bultzatzailea maila handiko beste figura batzuekin: Manuel de Falla, Ernesto Halfter eta abar. Bestalde, hurbilagoko figura bat, bestea bezain interesgarria eta aberatsa: Pello Apezetxea, Etxalarko parrokoa hainbat hamarkadatan, etnologoa, etnografoa eta Euskaltzaindiko ohorezko kidea,



duela gutxi hil dena. Bi pertsonaiek lotura estua dute organoarekin. Torres, bere musikaren lerro estetikoaren bidez, Etxalar-ko eta beste leku batzuetako musika instrumentuaren soinu kalitatea eta edertasuna bikain nabarmentzen dituena. Apezteak sentsibiltatea erakutsi zuen tresna hori zaintzeko, eta senez ulertu zuen organoaren ondare ondasunak beti irekita egon behar duela hura hartzen duen herrialdeko kulturari, hain zuzen ere kultura hori aberasten duelako.

Entzunen ditugun lanak oso musika pieza egokiak dira Etxalar-ko elizako Eleizgaray organorako, eta Pio X.aren *Motu Proprio* agiriaren jarraibideen arabera konposatu zituzten egileenak dira. Izan ere, aita santu horrek oso ongi tratatu zuen erlijio musika, eta horretan hobere-netakoa da Elizaren historian. Nabarmentzekoa da programa osatzen duten egile guztiak 1902an fabrikatutako Etxalarko organoaren garaikideak direla.

Benantzi Bilbao (organoa, txistua, ahotsa)

## PROGRAMA

### **TITANEN DUOA |** Omenaldia bi gizon handiri: Pello Apezetxea, Eduardo Torres

**Luis Iruarrizaga** (1891 - 1928)

Quare tristis est anima mea

**Fray Hilario de Estella** (1894 - 1973)

Missa pro defunctis

Introito

Kyrie

Agnus Dei

Lux Aeterna

Saetak (I, II, III, IV)

Zatoz, ene Jesus

Esker oneko otoitza

**Eduardo Torres** (1872 - 1934)

Elegiazko abestia

**Luis Iruarrizaga**

Laetatus sum (A ze pozal)

**Eduardo Torres**

Berceuse

**Luis Urteaga** (1882 - 1960)

Agur Maria

**Victor Zubizarreta** (1899 - 1970)

Aleluia

**Luis Urteaga**

Amaiera

14

URRIA  
ostirala, 18:00  
San Nikolas eliza  
Iruña

## ÁLVARO LANDA, organoa JAVIER JASO, bakarlaria

**2**022ko zikloko zazpigarren kontzertu honetan, Álvaro Landak eta Javier Jasok ibilbide luzea eskaintzen digute Europako barrokoan zehar; hori posible da Iruñeko San Nikolas parrokiaren organoaren ezaugarriei esker, hiriko musika tresna enblematikoetako bat baita, eta haren presentzia ohikoa baita organoaren zikloan aspalditik. Halaber, programak garai historiko bateko genero organistikoen lagin interesgarri bat eskaintzen digu, guztiak elizaren liturgiari lotuak, hala luteranoa nola katolikoa edo anglikanoa, bakoitza bere ezaugarri eta testuinguruarekin.



## PROGRAMA

**Johann Pachelbel** (1653 - 1706)

Praeludium in D minor

**John Stanley** (1712 - 1786)

Voluntary in D Major, op. 6, 5. zk.

Adagio

Andante largoa

Moderato

**Domenico Zipoli** (1688 - 1726)

Sonate d'intavolatura per

Organo e Cimbalo

15. All' Offertorio

14. All' Elevazione

13. Al post Comunio

**Jan Pieterszoon Sweelinck**

(1562 - 1621)

Echo Fantasia la minorrean

**Dietrich Buxtehude** (1637 - 1707)

(koral bakarlaria, organoa, koral  
bakarlaria)

In dulci jubilo

Letra: latina/alemana, Enrique Susón,  
ca. 1328

Koruko melodiaren harmonizazioa:

Michael Praetorius

Koral organoa: Dietrich Buxtehude

BuxWV 197

**Johann Sebastian Bach**

(1685 - 1750)

(koral bakarlaria, organoa, koral  
bakarlaria)

Herr Christ, der einig Gotts Sohn

Letra: alemana, Elisabeth Creutziger  
1524

Koruko melodiaren harmonizazioa:

J.S. Bach

Koral organoa: J.S. Bach BWV 601

**Johann Sebastian Bach**

(koral bakarlaria, organoa,  
koral bakarlaria)

Von Gott will ich nicht lassen

Letra: alemana, Erfurt 1572.

Koruko melodiaren harmonizazioa:

J.S. Bach

Koral organoa: J.S. Bach BWV 658

**Louis Marchand** (1669 - 1732)

Grand Jeu, 3e Livre d'Orgue



# 22

URRIA  
larunbata, 19:30  
Andre Maria  
katedrala  
Tutera

## JORGE GARCÍA MARTÍN,

organoa

JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA,

organoaren bisita gidatua

**E**GUN horretako saioan, Tuterako katedraleko organoaren baliabideak aurkeztuko dira, Jorge García Martínek Espainiako estilo barrokoan egingen dituen inprobisazioen bidez. Interpretatzaileak berak honela kontatzen digu:

“Programa honen helburua da inprobisazioaren artea erakustea, instrumentuaren soinu ezaugarriak erakustearekin batera. Horregatik, musika hautaketan teklako genero iberiar tradizionalen askotariko bilduma bat sortu da (sagarapenerako italiar estiloko tokata bat gehitzeko atrebentzia izan dut), katedraleko arkitektura elementu ospetsu batzuetan inspiratuta.”



## PROGRAMA

### ARKITEKTURA, GIROAK ETA SONORITATEAK

**Jorge García Martín (1985) \***

Sagarapenerako tokata

Organoaren hondoen gaineko pieza

**Jehan Tabourot (1519 - 1595)**

Diferentziak *Belle qui tiens ma vie* pabanaren gainean

Organo positiboaren erregistrazioa

**Jorge García Martín \***

Andre Maria Zuria: Ut re mi fa  
solen gaineko fantasia

Nagusien jokoak

**Jorge García Martín \***

Gaillardak

Flautak eta nasardoak

**Jorge García Martín \***

Tentua, bigarren tonuko triplekoa

Korneta

**Jorge García Martín \***

Santa Ana kapera: Tentua, sei-  
garren tonuko erregistro osokoa

Betea

**Jorge García Martín \***

Batailako tokata

**Jorge García Martín \***

Judizioaren bataila

Mihiteria

\* Jorge García Martínek inprobisatutako piezak



